

V - BESTELAKOAK

FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

Klubentzako laguntza deialdia, izandako kirol arrakastagatik

Lehenengoa. Xedea

Deialdi honen xedea da Kirolaraba Fundazioak laguntzak ematea goi mailako kategoria absolutu federatuan dauden kirolari edota taldeak dituzten kirol klub eta elkarteei, kirol arrakasta maila zehatz batzuetara iritsi badira, 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean kirol arrakasta lortu izana dela medio. Talde horiek baldintza hauek beteta izan behar dituzte: Arabako lurralde historikoan egon, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda eta Arabako kirol federazioetara atxikita egon.

Gobernu Foralaren Kontseiluko, azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 134. zk., 2019ko azaroaren 20ekoa) arautuko du deialdi hau. Foru dekretu horren bidez, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan, lehia bidez emango diren dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen oinarri-arau orokorrak eta oinarri bereziak onetsi ziren; deialdia hemen jasotako eduki eta prozedurara egokituko da.

Bigarrena. Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zuzkidura, 96.000,00 eurokoa, Kirolaraba Fundazioaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuari egotziko zaiona.

Kirolaraba fundazioak ez du zertan aurrekontu osoa agortu behar.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu ondoren gerakina egoten bada, patronatuari ebaizen proposamena aurkeztu behar dion kide anitzeko organoak proposatu ahal izango du gerakin hori beste laguntza lerro batera edo beste gastu batera bideratzea.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

1. Arabako lurralde historikoan egon, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda eta Arabako kirol federazioen batera atxikita dauden kirol klub eta/edo elkarteak izan daitezke mota honetako laguntzen onuradunak, baldin eta bertako kideak, nola bakarrik hala taldean, gutxienez iraupen laburreko kirol jardueretan lehiatu badira (kopak, txapelketak etab.), kasuan kasuko kirol modalitatean, eta, beti ere, kategoria absolutuan.

Baldin eta, zein den haien kirol modalitatea, kirol arrakasta erdietsi badute, betiere kategoria federatuan eta deialdi honetako seigarren klausulan adierazitakoren barruan.

1.1. "Zazpi Herrialde" izeneko lehiaketan parte hartzea Espainiako txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.

1.2. Aurkeztutako modalitateak eta/edo espezialitateak ez badaude sartuta ofizialki aitorturiko federazioetan, orduan fundazioaren patronatuari ebaizen proposamena aurkeztu behar dion kide anitzeko organoak dauden federazioen arteko baliokide bat hartu ahalko du erreferentzia gisa, egokituz joz gero.

2. Horrelako kirol jardueratzat honako hauek hartuko dira: multzo bakar batean nahiz multzo bat baino gehiagotan, 7 lehiaketa egun baino gehiago irauten ez duten lehiaketa ofizialak, Espainiako, Europako eta/edo munduko txapelketetako kategoria absolutuetan, 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean, dagokien federazioak antolatuak baldin badira.

“Kadete”ak baino kategoría baxuagoko lehiaketetarako (haurrak, kimuak, benjaminak...), izan beharreko baimena izan beharko da Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak emaniko lizentzia federatua lortzeko.

Betiere, lehiaketa horiek lehiaketa mailarik gorenei dagozkiela ulertuko da eta, horren ondorioz, baztertuta egongo lirateke honelako lehiaketak: 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarriko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta abar.

Kategoria absolutuko lehiaketetan parte hartzen duten taldeen gaineko eskaerak aurkez ditzakete erakunde onuradunek.

Ez dira aztertuko kasuan kasuko kirol proban gutxienez seigarren klausulan adierazitako posturen bat lortu izana justifikatzen ez duten eskaerak.

3. Ez da onartuko hauek egindako eskaerarik:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik ez dauzkaten kirol erakundeak.
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau-hauste-engatik zehapena jaso duten kirol erakundeak, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen dituen kasuetan daudenak ere.
- “Kirol erakunde profesionalak; halakotzat jotzen dira indarreko araudian jasorikoak (LFP, ACB, etab.)”
- * Klubak, zeinak aurreko paragrafoan sartzen ez badira ere kirolari profesionalak baitauzkate.
- * Arabako Foru Aldundiarekin babes kontratua daukaten goi mailako kirol klubak eta/edo taldeak, haien goi mailako talderen batentzat. Egoera horretan, kirol klub eta/edo elkarteek eskaerak aurkeztu ahalko dituzte paragrafo honen hasieran adierazitakoa baino kategoría txikiagoko taldeentzat, baldin eta deialdi honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.
- Klubak, zeinak “profesionalak” izan ez arren kontratu eta/edo beste era bateko loturak baitauzkate, betiere zuzenean (adibidez eskumeneko kluba) klub profesionalekin edo hartakotzat jotzen direnekin.
- Arabako Foru Aldundiarekin babes kontratua daukaten maila goreneko kirol klub eta elkarteak.

4. Baldin eta kirol klub eta elkarteren baten eta erakunde horretako kideren baten eskaerarik jasotzen bada, eta bakoitzak dagokion deialdia kontuan hartuta egin badu eskaera, taldeak egindako eskaera lehenetsiko da banakakoaren aldean; hau da, klubaren eskaera hartuko da kontuan eta kirolariarena baztertu.

Laugarrena. Eskaerak aurkeztea

Erakunde bakoitzak eskaera bat baino ezin izango du aurkeztu, eta bertan adierazitako du taldeak edo, banaka lehiatuz gero, kirolariak lortutako arrakastarik handiena zein izan den.

Hainbat eskaera jaso edo, eskaera berean hainbat arrakasta aurkeztuz gero, lortu den posturik onena balioetsiko da; beraz, gainerako arrakastak ez dira kontuan hartuko.

1. Kirolaraba Fundazioaren Patronatuari zuzendu beharko zaizkio eskaerak, I. Eranskin gisa atxiki den ereduari lotuta, eta Fundazioaren gizarte egoitzan aurkeztu (Probintzia plaza, 5, 3. PK: 01001 Gasteiz).

Eranskinak honakoak ditu:

1.1. 1. orria: erakunde eskatzaileari buruzko datuak, posta bidez jakinarazpena egiteko helbidea, emandako datuak lantzeko baimena, aurkezten duen dokumentazioa adieraziz eta dokumentua sinatuz.

1.2. 2. orria: Kirol arrakastari buruzko datuak eta Arabako kasuan kasuko federazioaren egiaztagiria.

1.3. 3. orria: adierazi behar da erakunde eskatzailea ez dagoela adierazitako egoeraren batean ere. Baita ere, banku kontuaren zenbakia aurkezten du, IBAN kodea adieraziz.

Agiri horrek banku erakundearen zigilua izan behar du, bankuko kontu zenbakia erakunde eskatzailearena dela egiaztatzeko.

Identifikazio fiskaleko txartelaren (IFZ) fotokopia entitate eskatzaileari alta eman behar izanez gero baino ez da aurkeztuko.

Adierazitako egoeretatik batean ere ez dagoela adierazten du.

Bere lan eta zerga egoerarekin lotutako datuak adierazten ditu, baita datuen babesari buruzkoak ere.

2. Betiere, jakinarazpenetarako ematen den helbidea adierazi beharko da.

3. Laguntza hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berriaz onartzen dela esan nahi du.

4. Eskatzaile bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztu ahal izango du lortutako arrakastarik hoberenagatik, eta txapelketa berean hainbat arrakasta eskuratu baditu, horietatik hoberena jasoko da eskaeran.

5. Erakunde eskatzaileak "Eliteko klubetarako laguntzak" dirulaguntza lerrotik laguntzaren bat jaso badu, aurkeztu beharreko dokumentazioan erakutsi behar du Kirolaraba Fundazioaren publikitate egin duela ekipoaren joku ekipazio ofizialean, karteletan, web orrian (izanez gero) etab.

6. Ez da onartuko kasuan kasuko apartatuan zerrendatuta ageri diren datu eta agiri guzti-guztiak jasotzen ez dituen eskaerarik.

Hala ere, aurkeztutako datu edo dokumentazioaren bat osatugabe badago edo aski ez bada, fundazioak eskubidea izango du eskaera aurkeztutako datuekin ebatzi edo kasuan kasuko ga-bezia zuzentzeko hamar eguneko epea emateko, ohartaraziz hala egin ezean eskaera bertan behera utzi dela ulertuko dela, aldez aurretik horren inguruko ebazpena emanez.

Laguntza eskaera bat izapidetzeko onartzeak ez du esan nahi hura emateko konpromisoa dagoenik.

7. Erakunde eskatzailearen beste datu batzuk:

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzearen ziurtagiriak:

• Soldatapeko langilerik ez daukaten erakunde eskatzaileek hauexek aurkeztu beharko dituzte:

– Zerga betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria.

– Beren kargura soldatapeko langilerik ez daukaten adierazpena.

• Soldatapeko langileak daukaten erakunde eskatzaileek hauexek aurkeztu beharko dituzte:

– Zerga betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria.

Bosgarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko irailaren 1ean hasi eta 2020ko irailaren 30ean amaituko da, egun hori barne.

Seigarrena. Laguntzak emateko irizpideak

1. Bigarren klausulak jasotzen dituen eta diruz lagun daitezkeen jarduera guztien laguntzarako irizpideak haztatzeko eta laguntzok eman ahal izateko irizpide hauek izango dira kontuan, hau da, laguntza xede diren goi mailako talde eta/edo kirolarien kategoria absolutuko datuak baino kontuan hartzen ez dituen irizpide hauek:

Lehiaketa maila:

LORTUTAKO POSTUA	ESPAINIAKO TXAPELKETA KATEGORIA EZ ABSOLUTUA	ESPAINIAKO TXAPELKETA	EUROPAKO TXAPELKETA KATEGORIA EZ ABSOLUTUA	EUROPAKO TXAPELKETA	MUNDUKO TXAPELKETA KATEGORIA EZ ABSOLUTUA	MUNDUKO TXAPELKETA
Lehenengoa	15	25	25	50	35	100
Bigarrena	10	20	20	45	30	90
Hirugarrena	5	15	15	40	25	80
Laugarretetik zortzigarreneira	0	0	10	35	20	70
Parte-hartzea	0	0	5	30	15	60

Laguntzak banatzeko puntuazio bidezko banaketa sistema bat aplikatuko da. Horretarako, bigarren kalusulan zehaztutako zenbatekoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, baldin eta zenbateko hori eta gainerako diru sarrerak gehitzearen emaitzak jardueraren gastuak gainditzen ez baditu.

Emaitza gisa lortutako kopurua edozein dela ere, honako muga hauek aplikatuko dira:

	ESPAINIAKO TXAPELKETA	EUROPAKO TXAPELKETA	MUNDUKO TXAPELKETA
Muga	5.000,00 euro	8.000,00 euro	10.000,00 euro

Lortutako arrakastarik handiena baino ez denez balioesten, laguntzak ezin izango dira metatu.

Laguntzak aurkeztutako datuekin aplikatuko dira, 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra arteko aldiari dagozkionak; ezingo dira ondorengo urteetarako eskatu, aurrekarizat eskatuta.

Laguntzak eskatu dituzten erakunde eskatzaileek aurkeztutako datuak benetakoa direla frogatzeko eskubidea izango du fundazioak. Fundazioak egiaztatzen badu aurkeztutako datuak faltsuak direla, datuok etorkizuneko deialdietatik kanpo geratuko dira, eta, hala badagokio, jasotako kopurua itzuli egin beharko da.

Zazpigarrena. Eskaerak aztertu eta ebaztea

1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertu eta ebatziko da dirulaguntza eman ala ez.
2. Espedientea aztertuta, kide anitzeko organo batek egingo du dirulaguntza proposamena, hau da, Fundazioko Patronatuak hautatutako hiru pertsonak osatutako kide anitzeko organo batek. Kide anitzeko organoak behin betiko ebazpen proposamena aurkeztuko dio fundazioaren patronatuari.
3. Behin betiko ebazpen proposamena ikusita, fundazioko patronatuaren presidentziak gehienez sei hilabeteko epean ebatziko du deialdia, ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du.
4. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

5. Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio fundazioa atxikita dagoen saileko diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 122. artikuluan xedatutakoarekin. Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, errekurtoa ezetsi dela ulertu behar da.

Errekurtsoaren ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zortzigarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdiaren ebazpena eman ondoren; izan ere, eskaerarekin batera aipatutako justifikazioa aurkeztu da.

Ordainketa ezingo da egin harik eta onuraduna zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzean egunean egon arte.

Bederatzigarrena. Erantzukizunak

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dituzte programa eta/edo jarduera egitetik sor litezkeen erantzukizunak, eta indarrean dagoen legediak haren garapenerako eskatzen dituen baimenak eskatu beharko dituzte.

Hamargarrena. Publizitatea

1. Deialdi hau argitara emateko, ALHAOn iragarki bat jarriko da. Horrez gainera, fundazioaren webgunean ere jarriko da: www.kirolaraba.eus.

2. Erakunde onuraduna behartuta dago deialdi honetako laguntza jaso dezaketen jardueri buruzko argibide, publizitate eta propaganda orotan berariaz eta modu argian adieraztera Kirolaraba Fundazioak babesa eman duela; edonola ere, laguntza ekonomikoa ematen zuen ebazpenean zehazten ziren baldintzetan egingo da hori.

Hamaikagarrena. Interpretazioa

Deialdi hau interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Kirolaraba fundazioak ebatziko du.


Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 20a

Kirolaraba Fundazioaren Patronatuko presidentea

ANA M. DEL VAL SANCHO

Patroia

PABLO DE ORAÁ OLEAGA

 <small>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Alava</small>	KIROL ARRAKASTARENGATIK KLUBENTZAKO DIRULAGUNTZETARAKO ESKAERA (I. ERANSKINA) 2020 AYUDA A CLUBES POR SU ÉXITO DEPORTIVO MEMORIA-SOLICITUD (Anexo I)
---	---

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Sozietatearen izena ■ Razón social

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 IKZ ■ CIF

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P.K. ■ C.P.

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Harremanetarako pertsona ■ Persona de contacto

Honekin batera, ondokoak aurkeztu behar dira:

- Zerga betebeharrak egunean edukitzeari buruzko ziurtagiria.**
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzeari buruzko ziurtagiria.**
- Halakorik dagoenean, erakunde eskatzaileak gizarte izaera duela jasotzen duen agiria.**


Acompañar de:

- Certificado del cumplimiento de las obligaciones Fiscales.
- Certificado de cumplimiento de obligaciones con la Seguridad Social.
- Reconocimiento de carácter social de la entidad solicitante (en su caso).

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona representante

Orria ■ Hoja 1/3

 <small>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</small>	KIROL ARRAKASTARENGATIK KLUBENTZAKO DIRULAGUNTZETARAKO ESKAERA (I. ERANSKINA) 2020 AYUDA A CLUBES POR SU ÉXITO DEPORTIVO MEMORIA-SOLICITUD (Anexo I)
---	---

Behean sinatzen duen Arabako Federazioak ■ La Federación Territorial Alavesa abajo firmante

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

_____ klubak, IFZ-eko
_____ zenbakia duenak, estatuz edo gairako lehiaketei buruzko datu hauek
dituela 2019/2020 denboraldian:

Que el Club _____, con N.I.F.. Nº
_____ en la temporada 2019/2020, ha conseguido el siguiente éxito deportivo referido a
competiciones de nivel nacional o superior:

Kirol modalitatea	
Modalidad deportiva	

LEHIAKETAREN IZENA / NIVEL DE LA COMPETICION

Lehiaketa / Competición	LORTUTAKO POSIZIOA PUESTO ALCANZADO O
Munduko txapelketa Campeonatos del Mundo	
Europako txapelketa Campeonatos de Europa	
Espainako txapelketa eta Espainako kopa Campeonatos y Copas de España	


Lehiaketaren izena	Tokia / Lugar	Data / Fecha
Nombre de la competición		
	BAI / SI	EZ / NO
Kirolariak kategoría absolutua du La competición es de categoría absoluta		

Izenpea ■ Firma _____

FEDERAZIOAREN ZIGILUA ■ SELLO DE LA FEDERACIÓN _____

FEDERAZIOA ■ FEDERACIÓN _____

Orria ■ Hoja 2/3

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Alava</p>	<p>KIROL ARRAKASTARENGATIK KLUBENTZAKO DIRULAGUNTZETARAKO ESKAERA (I. ERANSKINA) 2020</p>
	<p>AYUDA A CLUBES POR SU ÉXITO DEPORTIVO MEMORIA-SOLICITUD (Anexo I)</p>

ENTITATE ESKATZAILEA ■ ENTIDAD SOLICITANTE

Sozietatearen izena ■ Razón social

	IKZ CIF	
--	------------	--

ADIERAZTEN DU / MANIFIESTA QUE:

1.- Kasuan kasuko kirol federazioak edo administrazio agintaritzak (zernahi lurraldetakoa) ez diola zehapenik jarri, etadura edo desgaitzuntza zigorra ezarrita, kirol arau hauste larria edo oso larria egiteagatik.

No se encuentra sancionado/a con pena de suspensión o inhabilitación por la correspondiente federación deportiva y/o autoridad administrativa (de cualquier ámbito territorial) por la comisión de una infracción disciplinaria deportiva de carácter grave o muy grave.

2.- Kasuan kasuko kirol federazioak edo administrazio agintaritzak (zernahi lurraldetakoa) ez diola etadura edo desgaitzuntza zehapenik jarri, kirol arau hauste larria edo oso larria egiteagatik.

No se encuentra suspendido/a o inhabilitado/a por la correspondiente federación deportiva y/o autoridad administrativa (de cualquier ámbito territorial) por la comisión de una infracción disciplinaria deportiva de carácter grave o muy grave.

3.- Ez dagoela inputatuta, prozesatuta eta kondenatuta, indarrean den Zigor Kodean aplikatzen diren edozein jurisdikziotan dauden prozedurei dagokienez.

No se encuentra imputado/a, procesado/a ni condenado/a en relación con procedimientos existentes en cualquiera de las jurisdicciones en las que se aplica en Código Penal vigente.

4.- Ez du, sexua dela-eta inor bazterteagatik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dion zehapenik izan, ez arlo administratiboan ez penalean

No se encuentra sancionado/a administrativa y/o penalmente con la pérdida de la posibilidad de la obtención de subvenciones o ayudas públicas, especialmente en las relacionadas con discriminación por razón de sexo.

<input type="checkbox"/>	<p>Administrazioari edo dagokion erakundeari baimena ematen diot diru-laguntzaren ordainketa edota zuriketa egin ahal izateko premiazko diren fiskalitate datuen gaineko informazioa eskatzeko</p> <p>Autorizo a solicitar a la administración u organismo correspondiente información relativa a los datos de carácter fiscal que tengan relación directa con los requisitos para el abono y/o justificación de la subvención</p>
<input type="checkbox"/>	<p>Entitateak EZ du soldatapeko langilerik ■</p> <p>La entidad NO tiene personal asalariado</p>
<input type="checkbox"/>	<p>Entitateak soldatapeko langilerik ba du ■</p> <p>La entidad tiene personal asalariado</p>
<input type="checkbox"/>	<p>Zerga betebeharrak egunean ditu ■</p> <p>Se encuentra al corriente de obligaciones fiscales</p>
<input type="checkbox"/>	<p>Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ditu ■</p> <p>Se encuentra al corriente de obligaciones con la Seguridad Social</p>

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

BANKUA ■		
BANCO		
IBAN		SWIFT

FINANTZA ENTITATEAK bete behar du ■ A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA

Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)

Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona interesdunaren izenean eta NANarekin dagoela irekita ■
La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al DNI y nombre de la persona interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE"

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona representante

--

Orria ■ Hoja 3/3